

Laru bizi zan gaixoa,  
lo-ebak oiñaztuta...  
Bekaitz-zedena bai eukon  
biozpean aginka.

Onen barria izan eban  
ortzargiak goiz batez,  
ta at uxa eban, mosua  
josiz izpi-ertzenez.

Geroztik itxas-ertzean  
bakar dago gaixoa:  
Bekaitzak zital biurtzen  
abaraska gozoa.

Or zergaitik **Eriotzorri**  
bakar ta me dagoan,  
eden mingotsa bai dauko  
osto eze barruan.

### **LILIA** (Selgas'ena)

«Ederra da lilia», dabese txoriak,  
zoro antzo egazka lili inguruan:  
a baiña erruge izan, ta lotsa gorritan  
gorde dagiz liparrez ostotxo guriak.

«Benetako zaputza, iñoen zurturik,  
eguzki zerutarrik ezpaitau atsegin».  
Eta ego-itzulka ebiltzazan arin;  
liliak gordeago burua oraindik.

Ostera be txoriak: «Bear bada, lili,  
egan aizetxo mea samingarri yatzu?»

Ak barriz, erantzuki, abarra makurtu  
ta barru-barru geigo orriak estali.

Uxa ziran txoriak, ta izukor, lerdena,  
osto-bikain ta joriz ager zan lilia:  
izpi-dirdaika bere soiñeko garbia.  
Oi lotsa garbiaren ditzira gardenal!

### **SARATSA TA NEKOSTA** (Selgas'ena)

Oinkada luzez dator gaba laiñotsua;  
arrats-zoriak, garbi ta betondo itunik,  
zelai ta lora-baratz joriak itxirik,  
gaiñeko euna bildu dau ezkututsua.

Ara-ona kulunkaz sarats zimel mea,  
barne-lor iraunkorra zerbait arintzeko;  
aize-egoz dabiltsu aren oin ermo,  
barru-ots bizi-legun ta intziraz betea.

«Atsege jaio nintzan.. Izaki-zorunak  
ba-dira, barriz, ludi baltz onetan naiko,  
lor, zotin ta ituna zer dan ez dakienak»

Au esanik, orriak bera yakoz jausten.  
«Bean negar dagina zoriontsuago»,  
darantzutso nekostak, ortzia begitzen.

### **ARTE DRANGALA**

Goiko bide ertzeko aldatz-muiñoan  
arte bat daukazu, urtez betia.  
Enborra sendorik, baiña kimutza  
aize ta euriak jana guztia.